

Euskal Herriak bere botere judizial propioa behar duela aldarrikatu du HBk

Euskaldunak beren herrian eta hizkuntzan epaituak izatea galdegin du

Gorane Agirre / Bilbo

Euskal Herriak bere botere judizial propioa sortu eta antolatzeko eskubidea izatea, eta ondorioz bere Auzitegi Gorena izatea, aldarrikatu du HBk. Ildo horretatik, euskal herritarrek beren herrian eta hizkuntzan epaituak izateko duten eskubidea bermatzea galde egin du.

EUSKARA eta euskal herritarrek Justizia Administrazioaren aldetik pairatzen ari diren «eraso sistematikoa» salatu zuen Ibon Arbulu HBko Mahai Nazionalako kideak atzo; «argi gorria piztu egin da», esan zuen.

Euskarak eremu judizialean pairatzen duen «gurutzada» horren hainbat adibide eman zituen Arbuluk; esaterako, EHE, hainbat abokatu euskaldun eta Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko dekanoa «kriminalizatzeko saiakerak», eta Auzitegi Konstituzionalak Aizarnazabalgo Udalak euskaraz bizitzeko onartu araudia baliogabetzeko emandako ebazpena.

Era berean, EAEko Auzitegi Nagusiak Usurbilgo Udalarri bere agiriak gaztelania hutsez bidaliko dizkiola eta itzulpenaz udal zerbitzuak arduratu beharko duela jakinerazi izana ere aipatu zuen HBko Mahaikideak.

Euskarak alor judizialean jasaten duen egoera «bidegabe» horren iturria, Arbuluren arabera, gaur egun «indarrean dagoen marko juridiko-



Endika Garai batzarkidea eta Ibon Arbulu HBko mahaikidea, atzoko prentsurrekoan.

politikoak sortzen dituen deribazio judizialak» da.

Testuinguru horretan, Euskal Herriak bere Botere Judizial propioa eta ondorioz, bere Auzitegi Nagusia izatea aldarrikatu zuen HBk. Izan ere, Endika Garai Bizkaiko batzarkideak adierazi zuenez, «bada garaia euskaldunek babes judiziala behar dutenean arrotz duen Madril edo Parisko botere batera ez jotzeko».

Aldarrikapen hori sartua du HBk akordio nazionalerako proposamenean, eta gizarteratzeko asmoa du. Horretarako, alderdi politiko, gizarte elkarte eta sindikatuarekin harremanetan jarriko da alderdi abertzalea.

proposamenak

Euskal Botere Judizial propioa

Euskarak eta herritar euskaldunek eremu judizialean egun bizirik duten «egoera bidegabea» gainditzeko proposamena egin zuen atzo HBk. Proposamenak honako hiru neurri nagusiok biltzen ditu:

Botere Judizial propioa • Euskal Herriak eskubidea du Botere Judizial propioa izan, sortu eta antolatzeko.

Euskal Auzitegi Gorena • Euskal Herriak bere Auzitegi Gorena izan behar du. Auzitegi horretan bukatu behar dira euskaldunen arteko gatazka eta liskar judizial guztiak, beste inora joan barik. Bertan, babestuta egon behar dute askatasun publikoak eta herritarren funtsezko eskubideak. Euskal herritarrei eskubideok bermatzeko ez da Euskal Herrikan kanpo joan behar.

Herrian eta euskaraz epaituak • Euskal herritar orori bere hizkuntza propioan epaitua izatea bermatu behar zaio. Baita bere herrian epaitua izateko eskubidea ere, auziaren hasieratik azkeneraino.

Baionako IUTeko ikasleek aurreen enprekin lan egiten dute

■ **Komertzializazio**
Teknikak ikasten dituzten gazteei proiektuak aurkeztu zaizkie

Iñaki Etzeleku / Baiona

LEHEN urteko ikasleek, beren formakuntzan sartzen diren proiektuak eraman behar dituzte Iparraldeko lantegi batzuekin. IUT edo Teknologia Unibertsitate Erakundeko erakasleek lagunduko dituzte proiektuaren jarraikitzen. Gauza ezberdinak egiten dituzte horri esker ikasleek, hala nola marketin egintzak (telemarketing, mailing...), merkataritza animazio orotarik, saltzeak, merkatu azterketak, gertakari antolakuntzak... Lantegien eta elkarten beharren arabera ari dira lanean, eta ikasturteko edozein momentutan eramaiten dituzte egintzak, erakasle baten erantzukizunpean.

Iragan urtean IUTekin ari izan diren lantegi eta elkarte buruek ostegunean aurkeztu zituzten aurrengo ikasleei jarraikiko dituzten proiektuak.

Aktibitate anitz egiten dituzte, eta IUTeko erakasle eta ikasleek jakinarazten dute lantegi eta elkartei haien zerbitzuko direla dituzten merkataritza proiektuentzat edo beharren arabera. Interesatuak diren lantegi edo elkarteek, Beñat Zuburu edo Karine Guilloteau dei dezakete, 05 59 52 89 92 zenbakira.

PSE: «Hizkuntz adostasuna hautsi egingo da euskal elebakartasuna geldiarazi ezean»

■ **Oliverik dio «egungo elebidun ia bakarrak» D eta B ereduak direla**

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

ISABEL CELAA PSE-EEko parlamentarioaren ustez, «hezkuntza sistema elebitasunetik euskal elebakartasunera igarotzen ari da». Gainera, horri aurre egin ezean, Euskal Autonomi Erkidegoan azken bi hamarkadetan indarrean izandako «hizkuntz adostasunak» hautsi egingo direla esan zuen, mehatxu moduan.

Celaak galdera bat egin zion Inaxio Oliveri Jaurilari-

tzako Hezkuntza sailburuari Legebiltzarreko osoko bilkuran. Sozialistak salatu zuen Hezkuntza Sailak ikasturteon bultzatutako A ereduaren doikuntzak «eskaintza uniformizatzea» duela helburu bakarra: «Hiru menu izatetik, aurki bakar bat izatera goaz».

Bestetik, auzitan jarri zuen D ereduaren errendimendua: «Egin ezazu sistemaren ebaluketa, baina ereduaren arabera, bestela hemendik hamar urtera Estatu Batuetako

Ertaintetan bezala egongo gara: lau ikasletik hiruk idazten ez dakitela».

Oliverik erantzun zion herritarrek ez direla «tontoak», eta ez luketela D hautatuko ongi erakutsiko ez balu. Gainera, esan zuen egun «ikasle elebidun ia bakarrak» D eta B ereduak direla; hala ere, A-koak ere elebidunak izatea lortu behar dela esan zuen. A aldatzeko plangintzan dauden zentroek borondatez onartu dutela erantsi zuen.



PSE-EEko Isabel Celaa, atzoko agerraldian.

JOSEBA OLALDE